

# Ahokotasunetik euskal hirian murgildu zen antropologoa

(The anthropologist who, starting out from oral tradition, emerged himself in the Basque city)

Apalategi Begiristain, Jokin

Univ. del País Vasco / Euskal Herriko Unib. Psikologia Fak.  
Gizarte Psikologia eta Portaera Zientzien Metodologia Saila.  
Tolosa Hiribidea, 70. 20018 Donostia  
jokin.apalategui@ehu.es

BIBLID [ISBN: 978-84-8419-218-3 (2011), 21-37]

---

*Nola garatua zuen Joxemartinek pentsamentua, utzi duen ondare antropologikoa egiteko? Lupa hartu eta murgildu naiz, hasteko, haren haurtzaroan eta sozializazio bitartekoetan (sendia, eliza, eskola, lagunak eta gizarte hurbila). Gaztaroa, orduarte herritar iturritik jasotakoaren eta seminarioak zurkaiztutakoaren kontraesanaz haustura eta transizio aroa da. Hogeita bat urtez gero, adinaroan, pertsonalizazioarena deitu diodan aldi berri bat umotzen doa. Lorpenak eta etsipenak aipatuz gero, gehigarri gisa haren formazioaren zabalera eta ekimen orduan kulturagintzan parte-hartzeko hautaturiko elkarteak gogoratu ditut.*

*Giltza-hitzak: Ahokotasuna. Sozializazio pasiboa. Transizioa. Pertsonalizazioa. Hiriaren Antropologia.*

*¿Cómo había desarrollado su pensamiento Joxemartin para poder completar el patrimonio antropológico que nos dejó? He cogido la lupa y me he sumergido, en primer lugar, en su niñez y en sus medios de socialización (familia, iglesia, escuela, amigos y sociedad cercana). Su juventud es una época de ruptura y de transición, en la cual lo que había recibido hasta entonces de fuentes populares entra en contradicción con lo que posteriormente afianzaría en el seminario. A partir de los veintinueve años, con la mayoría de edad, va madurando ya una nueva época a la que yo denomino la de la personalización. Después de mencionar sus logros y frustraciones, como complemento he recordado su amplia formación y las asociaciones que escogió para participar en la vida cultural.*

*Palabras clave: Oralidad. Socialización pasiva. Transición. Personalización. Antropología de la ciudad.*

*Comment Joxemartin avait-il développé sa pensée pour compléter le patrimoine anthropologique qu'il nous a légué ? J'ai pris une loupe et j'ai plongé, d'abord dans son enfance et ses moyens de socialisation (famille, église, école, amis et communauté). Sa jeunesse est une période de rupture et de transition, au cours de laquelle ce qu'il avait puisé jusque-là dans les sources populaires entre en contradiction avec ce qu'il renforcerait plus tard au séminaire. À partir de vingt et un ans, une fois la majorité atteinte, il entre dans une nouvelle étape de maturation, que j'appelle de la personnalisation. Après l'énumération de ses réussites et frustrations, je mentionne, comme complément, sa formation approfondie et les associations qu'il choisit pour participer à la vie culturelle.*

*Mots clés : Oralité. Socialisation passive. Transition. Personnalisation. Anthropologie de la ville.*

2006ko otsailaren 8an, goizeko lehen orduan, Bilbon Basurtoko Ospitalean zendu zen, 1949ko otsailaren 17an, eguerdiko hamabietan, Ataungo San Gregorio auzoan, Ezkalune edo Imazberri etxean sortua zen Joxemartin Apalategi Begiristain. Euskal narratiba etno-mitologikoaren ezagutza zientifikoan ekarpen zenbait eginak dituelakoz, Joxemartinek iraupen luzeko formazioa (nahitezko baldintza eginkizun zientifikorako) nola garatua zuen aditzera emateko, eta haren kreatibitatearen prozesua noiz arian jarri zen agertu guraz plazaratzen dut idatzi hau. Betiko galdera izanik, noiz eta zergatik kreatibitate txinparta pizten den bakar batzuegan, eta beti erantzun anitza duen galdera dela jakinean, pertsonaia bakoitzari doazkion zirkunstantziak garrantzi handieneko direla uste dudalako, Joxemartinen kasuan eman diren nagusien berri ematen ahaleginduko naiz.

## **1. HAURTZAROAZ**

Sei senideko sendian laugarrena izanik gonbarazio terminorik ez zait falta haren haurtzaroa deskribatzeko orduan. Lehen hirurok itxuraz haur arruntak ginean, aldiz Joxemartin berehala nabarmendu zen. Hizketan hasi zenean hitz zenbait etzituen guk bezala ahozkatzen. Zailtasunak zituen. Berehala gurasoak arduratu ziren eta medikutan ibiliz gero diagnostikoa heldu zen. Suturretan eta eztarrian haragi faltsuak ditu. Kendu egin behar. Ebakuntza egin behar. Baina ez zen hurrengo egunean egin zitekeena guzti hori. Prestatu egin behar ziren gauzak. Eta horrek denbora bat hartu zuen. Binbitartean, herrietan gertatu ohi denez, izengoiti jartzaileek “Ezkaluneko frantsesa” deitu zuten. Ziur nago guzti horrek haren pertsonalitate eraikitzen hasi berri bazterketa ikutu bat eragin ziola. Bere jokabideak, bere bideak eta bere aukera partikularrak lantzerantz ekarri zion. Bazterte egoerak bultzatuta indar hartzen joan ziren haren baitan portaera batzuk. Oraino mutikoa zela, beharbada, sei edo zazpi urte besterik etzuenean, igandeetan gure auzora goxoki saltzera etortzen zen Bixente Mateu goardia zibil ohiarekin lagun min egin zen, eta berari laguntzen hasi zen. Enkarguak eginez, tarteetan saltzailearen standana gordez, etabar. Geroz eta lagunago egin ziren biak. Eta goxoki saltzaileak, Seguran bertako alaba zen Prantxikarekin ezkondua bizi zenez, hara gonbidatu zuen egun batez. Gure gurasoek harreman hori esku-zabal hartu zuten. Azken funtsean haurrari berak aurkituriko hedamen aukera onartu behar ziotela pentsatu zuten. Haurra denez, aberastu besterik ezin deza ke egin harreman horrek, argudiotu zuten. Pertsona zintzoak bezala ikusiak baitziren Bixente eta Prantxika. Baina ez dago ezpairik gutxiagotu eta baztertuen bizitzetan murgiltzen joan zihoala haur hura.

## **2. SOZIALIZAZIOAZ**

Zer trokelatan moldatu zen Joxemartinen oinarrizko idiosinkrasia? Bizitzaren lehen urteetan denok haurtzarale gara. Baina, ez dugu behin ere inork besteren berdinekorik jasotzen. Izan ere, influentzia okasioak hainbat eta hainbat direnez bik ez dute behin ere osotasunean bat egiten. Joxemartinen pertsonalitatea nola eraikia izan zen jakin nahirik abiatutako bidean urrats berriak emango ditugu.

## 2.1. Sendiaz

Nekazari-ikazkin sendiko zortzi senidetarik bosgarrena zen aita. Gure amarekiko aitak hamairu urte gehiago zituen. Hasteko eta behin, bada, aita ama baino anitez esperimentatuagoa zen bizitzarekiko, elkar ezagutu zutenean. Gainera, garai haietako jende gutxi bezala, gure aita herrian bezala herritik kanpo mugitzen zen bere ganadu tratulari profesioak eraginda. Beranduago finka sal-erosketak ere egin zituen Donostia eta Iruña artean, aste oroz itzulikatuz. Eskolako aroa laburra eta kaskarra izan bazuen ere, jende artean mugitzeak anitz aberastu zuen. Argia eta inteligentea zenez gogoeta ahalmena autolandu zuen. Hainbat aldiz esango zigun “eskola izan banu norbait izatera helduko nintzen gizarte bizitzako eskalan. Eskolatu ez izanak galtzen nau”. Bere anaia gazteenaren esperientziarekin eskolaren irriki hori areago hedatu zitzaion. Hiru urte jesuitekin ikasketak egin ondoren, hura utzirik etxeratzean, ikasketak egiten jarrai zezan konbentzitu zuten etxekoek. Gure aitak harro esan ohi zigun Zaragozan abokatu azterketak etxetik ikasita gainditu zituela eta arras kontent lagundu ohi ziola eginbehar horretan. Hau guztia konfirmatzeko amak behin eta berriz esan izan digu,

[...] zuok ume zinetenetik aitak hainbeste aldiz esaten zidan, gu behartsu biziko bagara ere gure ume hauek ikasketak burutu ditzaten dena jarri behar dugu. Zuok hazitzen joan ahala herrian jenderik izan zen esan zigunik, ume hauek ikasketetan ibili ordez fabriketara bidali itzazue, eta bikain bizitzeko aukera eskuratuko duzute berehala.

Aitaren mugak gaztaroan jasoa zuen dimentsio etikotik zetozen. Etxeaz kanpo sozializazio bitarteko nagusia elizak eragiten zuen aroan aitaren apez jansenista baten proiektua gauzatu baitzen. Jainko Autoritario, Nagusi Goren eta Justizieroaren irudi pean bizitzen erakutsi zion. Horrek ez zuen, hala ere, bera autoritario eta justiziero bilakatu, otzan eta errukior baizik. Baina, nagusitza eta justizia ordezkatzeko zutenekiko kontestazio gabeko mirespena eraman zuen. Ordena ezarri jarraitzaile zintzo bilakatu zen. Sinismen arraildura gabea eraiki zuen bere baitan. Azken hitza zen, Jainkoa goian, harek nahi duena gerta dadila eta gertatuko da. Ez dago eskaporik. Hari beldurra eta herabetasuna zor diogu. Sufrimendu gabeko plazerrik ez. Sufrimenduak bakarrik bermatzen digu bide zuzenaren presentzia. Oro, “ad majorem Dei gloriam” egin behar dugu. Loiolako Ignazioren basilikan ezkondu zirela esaten badut dena konprenitzen da. Hala ere, gure aita, Loiolakoarengandik baino hurbilago zegoen Saint-Cyranengandik berak bereizten ez bazekien ere. Azken honen jarraitzaile porrokatua baitzen bera espiritualki gidatzen zuen Jose Arteaga abadea. Baina, hain lotura handia al zuen abade gidariarekiko? Luistarren Kongregazioko buruzagi izendatua zuen gure aita. Urte luzez iraun zuen, hogeita hamalau urte arte ez baitzen ezkondu.

Ama, bederatzi senideko sendian zazpigarrena, guraso eta arbaso artzainen alaba zen. Mendiko artzainen leinukoa. Menditarra bada. Freskura dariola, gozoa eta ixila zen. Gure haurtzaroan aitaren estutasunak eta zorrotzasunak tenplatzen zituen. Aita ailegatzen ez zen hartara beti heltzen zen. Amarekin konponbidea zegoen. Estratega ahalmentsua eta malgua egin zen urteak joan hala. Zerbaitek

lehen kolpean harritzen bazuen ere, handik gutxira ziur ginen bere buru argi eta idekian enkajea atxemango zuela harridurako objektuak. Baina Joxemartinen haurtzaroan bigarren planoan jartzen zen ama. Aitak zuen lehentasuna. Aita zen-durik hilerrian utzi genuen egun berean, etxean ama eta senide guztiok bilduta geundela profitatuz Joxemartinek eduki zuen leherketa erakustaldiak gauza bat utzi zuen bistan: aitari atsekaberik eman nahi ezik erreprimetuta bizi izan zela urte luzez. Maitasun durduri bat zion aitari. Bere bizitzako sekretua (denontzat ezaguna zena, noski) senideoi agertzeko erabili zuen antzerki jukutriaz ari naiz.

## 2.2. Elizaz

Joxemartinen haurtzaroan Ataungo San Gregorion elizak gure bizitzetan zuen pisua erabatekoa zen. Azken funtsean, etxeko eta auzoko giro bera elizaren errainu pean bilakatzen zen. Elizak bizitzaren arlo guztietan eskuhartzen zuen. Egitura fundamentalista zuen jokabide harek. Ilustratzeko zenbait gertakizun kontatuko dut. Arruntak dira nahiz eta salbuespen itxura hartu daukaten harrigarritasunagatik. Esan nahi dut behin eta berriz errepikatzen zirela gertakizun hauek. Aita-amei gertatua da lehen kontakizuna. Aitak hogeita hamahiru urte arte soltero egonik andragaia egin zuen. Garai berean amaren neba zaharrenak ere bai. Giro zoriontsu hartan, igandez, bi bikote berriak elkarrekin promenatzera atera behar zirela erabaki omen zuten. Promenan abiatu eta gutxira Don Jose Antonio Arteaga apezarekin topo egin omen zuten kaminoan, pentsa nire aita Luistarren Kongregazioko buruzagi zela, ba apeza tokatzen zen moduan ohore guztiekin agurtu omen zuten, eta harek muzin egin eta erantzunik eman gabe bere bidean jarraitu omen zuen. Izan ere, jansenistarentzat, ezkontza, kristauak hautatu dezakeen egoerarik apalena, kaskarrena eta ahulena baitzen. Gizakian naturazko den oro lizunkeriatzat ematen zen. Apezaren burutik une hartan pasa zitekeena iragarri nahirik aitarengatik hau ondorio zezakeen: “honek ere eskapatu zidak, ez huken Jainkoaren hautatu horietarikoa, noski, nik hala uste banuen ere”. Eta kontakizuna ez da honetan amaitzen. Promena egin eta bi bikote berriak etxeratu zirenean, amaren amak esan omen zien, Don Jose Antonio Arteaga etxetik pasatu da, eta berehaldiko bronka bota dit, zuok kaminoan promenatzen zabilzetelako. Ea, nolako ama naizen esan dit, zuon ardurarik ez dudan, alegia. Hurrengo egunetan, hala ere, aita haserreturik Don Jose Antonio Arteaga ikustera joan omen zen. Zerbait esatekorik bazuen berari aurrez aurre adierazteko esan omen zion.

Bigarren kontakizun batek are konprendituaraziko digu elizaren domeinua jende xehearekiko norainokoa zen. Haur egin eta ama berriak suspertu edo birkortu bezain laster lehen irteera publikoan elizan sartzera joaten ziren. Apezak abegi egin truke ama berriak laguntzailereren bat alboan otarre saski ederra eramaten zion apezari, honela etxearen arabera zeukaten hoberenetik selekzionatuak oparitzen zitzaizkiolarik. Bordazulo Mikelak hamargarren haurra eduki ondoren haurra elizan sartzera joan zelarik, beti bezala otarre saskia gainezka beterik zaramala heldu omen zen. Apezaren etxeko atea jorik, atea irekitzera Don Jose Antonio Arteagaren iloba Teodora etorri omen zen, eta ikusi zuelarik beti bezala opariz beteta zetorrela, hau esan omen zion,

Mikela, hainbeste alditan ekarri izan duzu otarre saskia beterik etxe honetara, ba etzenukezun oraingoan horrela ibili beharrik. Gibelean, ilobak uste ez bazuen ere, hark esandako guztia entzuten Don Jose Antonio Arteaga han omen zegoen, eta berehala haserre aurpegiatu omen zion ilobari, hi neska ez haiz inor elizaren legea hausteko, barrura hortik, utz nazan Mikelarekin bakar bakarrik.

Mikela gaixoak auzokoei gertatutakoa kontatzean zera esaten omen zuen: “hua uhenan tristura nirea, etxera sartu eta han halako sendia gosez, apezari geuzken piskak eman da gero”. Herri guztiak zekien, asteazkenetan, apezaren hiloba Ordiziako ferira joaten zela, eliztarrek astean zehar oparitutako soberakinak saltzera!

Hirugarren kontakizuna, urte oroz Garizuma eta Bazkoa ailegatzean zegoen erritualari lotzen zaio. Don Jose Antonio Arteagak dotrina kurtsoak prestatzen zizkien auzoko eliztar heldu guztiei. Bazkoarekin kunplitu beharra egoten zenez, aurrez, dotrina kurtsoetan jardun eta apezaren txartela jaso behar zuen bazkoaz jaun hartu nahi zuenak. Ba, urte oroz hainbat eliztar gelditzen ziren herri guztia-  
ren aurrean lotsaz jaun hartzeko txartelik ez zutelako lortu. Urtean zehar zerbait apezari gustatu etzizaiona norbaitek egiten bazuen bazekien Bazkoaz herriaren aitzinean zigortuta lotsagarri agertuko zela.

Laugarren kontakizuna, Don Jose Antonio Arteagaren apez laguntzaile zen Don Ziprianori eratikitzen zaio baina biena izan zitekeen. Elizondoko Martiña andere gaztea haur baten ama halako batean aitortza egitera hurbildu omen zen eta apeza itaunka usaiozko zen bezala hasi omen zitzaion:

- Zenbat haur daukatzu?
- Bakarra esaten didazu.
- Zenbat urtekoa?
- Hirukoa, jauna!
- Baina, nola liteke hori? Dagoeneko beste bat ukan behar zenuen!
- Nahiko lanak eman dizkigu lehenak eta ez dugu hats hartzeko betarik izan.
- Hori ez da aitzaki txar bat besterik. Ez dizut zure bekatuen barkamenik emango. Gaur geroztik jakin ezazu kondenaturik bizi zarela!

Martiña ondoko egunetan kirioetatik eri, haurra eta bere burua beste mundura hegala zitezen desirioz beteta jarri zen. Sendikoek jabetu ziren arte! Anaia zaharrenak bere etxera eraman eta sendatu arte bertan gorde behar izan zuen. Denborarekin lau haurren ama izango zen.

Ataun San Gregorioko elizaren jokamoldea deskribatuko dut Pilar Barandiarangoak 1938an Jose Miguel Barandiarani eman zion lekukotza euskaratuz. Protagonista guk aipamen honetan dabilgun apez berbera baita.

Francoren tropak Ataunen sartu aitzin elizako predikuak oro gai erreljiosoetaz ziren. Baina ondotik, Don Jose Antonio Arteaga, San Gregorioko bikarioaren sermoien

parte handiena arenga politiko eta gerrariak ziren, Espainiaren handitasuna, soldadu frankotiarren adorea, Francoren gudarosteen garaipenak maiz aipamen zirelarik. Jaun horrek predikatzen dueneko elizako funtzioei jendeak mitinak deitzeraino. Aldiz Francoren aurka borrokatu diren soldaduak tronpatu eta ezjakintzat tratatzen ditu. Egun batez adierazi zuen ere azken motako soldadu hauek etorkizun gabe geldituko zairela; binbitartean “gure” soldaduek subsidioak ukanen dituztela eurentzat eta sendientzat. Prediku hau 1938ko maiatzaren hirugarren igandez egin zuen.

Bestalde, urtarilaren lehen igandetik hasi eta 1938ko Garizumaren erdi alde arte prediku oro gazteleraz bakarrik egina izan zen. Gauza bera errosarioari eta Meza ondoko Ave Mariari dagokienean gazteleraz esan ziren. Garai horretan jende anitz izan zen Meza Nagusira eta bezperetara joateari utzi zionik. Igande arratsalde zuzokideak elkarren etxeetan bilduz errosarioa euskaraz esaten hasi baitzen jende anitz. Ni neu arratsalde horietariko batean Sutegin bildu nintzen beste hainbat lagunekin errosarioa erreztatzeko. Elizan uzte etzitzagunez gordeka etxe partikularretan elkartuz egiten genuen. Katakunben garaiak ziruditen. Predikuak eta errezoak elizetan gazteleraz egiten ziren garai berean, Kandelaria eguneko argizariaren eskuratzea, Bula paperen lortzea, elizako aulkien ordainketa eta San Joseren bederatziurrenerako argizagien eskaintza, Arteaga Jaun Bikarioak pulpitutik euskaraz egin zituen.

Kantikak ere gazteleraz bakarrik abesten ziren. Orain Garizumaren erdiaz gero, kantikak euskaraz egiten dira, baita errosarioa eta latinez egitea ohiko ez den errezo oro ere. Predikua berriz bi hizkuntzetan egiten da: lehenik euskaraz, eta gero gazteleraz. Ave Mariaren euskarazko testua Agur hitzarekin hastea debekatua dago, nahiz eta horrela agertu dotrinan. Latinezko hitzak hasi behar da Ave Maria. D. Marcelino Errezolari Beasaingo Komandante militarrek deitu zion Ave Mariaren errezoan Agur hitza espreski debekatzeko. Ataungo Aiako Bikuña jaun apezga gaizki tratatuz mehatxatu egin omen zuten soldadu erreketak batzuei adio esatean agur hitza erabili zuelako.

1937ko abenduan soldaduzko bi batailoi deskantsatzen egon omen ziren; Eta nolaz eta herriko neska gazteen atzetik mugitzen ziren, Arteaga Jaun Bikarioak hauei kontuak eskatu beharrean herriko gurasoei eskatu omen zien arreta jartzeko euren nesken portaerak zaintzeko.

Urte honetako Corpus egunez Arteaga Jaun apez Bikarioak Administratzaile Apostolikoaren zirkular bat irakurri zuen limosna eskatuz Durango, Gernika, eta barretako eliza hautsiak konpontzeko, Jaun apez Bikarioak esan zuenez gorri-separatisten egintzak izan ziren. Elizatik jendea irtetean Gernikan (suntsipen garai hartan) bizi izan ziren Ezkurdiako haurrek, orain Sutegin daudenak, ahots ozenez zera zioten: “-Gorriek erre zutela Gernikako eliza? Ez, ez; frankotiarrek izan ziren erre zutenak; eurek erre zuten gure etxea ere”<sup>1</sup>.

---

1. Cf. GAMBOA, José M<sup>a</sup> de; LARRONDE, Jean-Claude. *La guerra civil en Euzkadi, 136 testimonios inéditos recogidos por José Miguel de Barandiaran*. Milafranga, Lapurdi: Bidasoa, 2005; 651-652. or.

### 2.3. Eskolaz

Joxemartini tokatu zitzaion eskola maisu falangista gaztetxoan desfilea izan zela esan da hobekien izaeratan da. Sei urte inguru auzoko eskolan egin zituen. Ba, aldi horretan sei maisutik gora igaro ziren. Batez beste urte bat eskas egiten zuten gure herriko eskolan. Izan zen, hiru hilabete egin eta joan zenik ere. Ataungo San Gregorion ezin jasan bertako euskal giroa. Hogeita bi urtekin Castillatik etorrita gazte samurrak etzuen malgutasun aski euskal mundu latza- ren pisua bizkarrean hartu eta aitzina eramateko. Bizkarra mintzen zitzaion arima gaixotzeraino. Burgoskoa, Leongoa, Zamorakoa etabar eduki zituen maisutzat. Ataungo San Gergorioko etxeetan jendea euskaraz hazi eta hezitzen zenean eta kalean bertako inori hitz bakar bat erderaz ateratzen etzizaionean, maixu erdal- dun haiek erritual eta sinbolo falangistekin goizeko lehen agurrak emanaz har- tzen gintuzteen haurrok euren eskolan. Euskaraz hitzegitea debekaturik zegoen. “Cara al sol...” abestiaz hasten ziren eguneko eginkizunak. Eslogan oihukatuak zetozen ondotik eta haurrek bibaz ihardetsi behar izaten zuten. Aulkietan eseri- tzean ikasle bakoitza maixuak orokorrean agindutako gaia lantzen hasten zen. Gehienetan autodidakta lana egiten zen. Liburuska eta kaierra irekiaz, aurrera eta atzera, askotan ezer konprenitu ezinik. Izan ere, maixu haiek sei urtetik hamalau urte arteko haurrak zeuzkaten areto berean. Mugitzen zenarentzat edo disziplina hausten zuenarentzat zigorrak zeuzkaten. Hasteko, betik maixuek euren eskuetan makila zutela egoten ziren. Jotzean behatz puntetan gehinbat jotzen zuten, baina, haserretuz gero nonahi, buruan ere berdin. Zigorren erre- pertorioan zegoen ere belauneko besoak zabalik aitzinera eramanaz denbora aldi baterako jartzea. Hori ez aski eta zenbait aldiz, besoak zabalik eta eskuetan hiztegi potolo batzuk ematen zituzten. Okerrago zena, maixu bat ezagutzen hasi orduko desagertzen zen herritik beste destino batera joateko. Gainera, bata joan eta bestea etorri binbitarte, noizbait gertatu zen denboraldi luzexamarra izatea, eta orduan, haurren gurasoek Udaletxeari erreguka jardunaz gero auzoan lanean ari zen emagina jarri zuten hutsune garairako maistratzat. Beste batean, Don Jose Antonio Arteaga hil ondoren apez lagunzaile bezala Ataungo San Gregoriora xedatu zuten Don Mario Albisu gaztea eskola publikora ekarri zuten. Azken honek Ataungo San Gregorioko zeruan eguzkia, izarrak eta ilargia aldi berean piztea lortu zuen. Eskolan interesaturik zueden haurrak banaka bere etxean har- tzen hasi zen eurekin ikasketa lana behingoz errotzeko. Joxemartinek Seminariora joateko behar izan zuen prestakuntza Don Mariok hasitako bideari jarraituz Don Xabier Irigoien apez laguntzaileari esker lortu zuen. Aldi berean, halabeharrak hala aginduta urte haietan Don Joxemiel Barandiaran erbestetik Ataungo San Gregorio auzora berriro itzuli zen. Oso apal eta zuhur agertzen zen. Baina, bere hurbilera ailegatzen zenarekin benetan laguntzaile eta bero zen. Joxemartinen bigarren sostengu irmoa bera izan zen. Akolito izanik noizbehinka bere meza laguntzaile izatea gertatzen zitzaion. Hala ere, Don Joxemielek parro- kiz kanpoko egoeran zegoelako bere akolito propioa zuen. Eta bestalde, Don Joxemielen jaiotetxeakoentzat gure aitaren Munduate etxea lehen auzo izateak harremak erraztu zizkion Joxemartineri. Gainera, Elbira Zipitria uda aldiatan Don Joxemielen Sara etxera etortzen hasi zenean Joxemartinek Elbirarekin ume harreman bero bat lortu zuen. Hainbat aldiz Elbirak paperezko itsasontziak edo hegazkinak egin izan zizkion.

## 2.4. Gizarteaz

Ataun orokorrean, eta San Gregorio auzoa partikulazki, oihanean sortzen joan zen<sup>2</sup>. Erdi Aroko lehen dokumentuetan, 1200ean Gaztelako kronika batek dioenez, "Athavit" gaztelua Alfontso VIII.ari eman zitzaion. Gero, 1261ean "Ataur" gaztelua aipatzen da. Azkenik 1277an, Nafarroako Erregeak "Ataun" gaztelua aipatzen du. Lurralde hori dena dela, historiaurretik datozen aroetan iada abeltzaintza eta nekazaritza pratikatzen zituena zen. Gure zibilizazioaren lehen milaurtean jentilen funtsezko egoera kulturean bizi izan zen. Kristautasunaren lehen arrastoa 1200 urtekoa da Joan Arinek aipatzen digunez: "el año 1200 existía la iglesia parroquial de Ataun, dedicada a San Martin, obispo de Tour"<sup>3</sup>. Lazkaoko oinetxea eta Ataun konzeptua luzez elkarturik agertzen dira Erdi Aroko dokumentuetan 1399an Ataun kolazio bilakatzen hasiko da. Lazkaoko ahaide nagusiarengandik iheska herri bezala bere toki propioa hartzen joango da. Ez da harrizkoa izango Joxemartinen haurtzaroan oraino, jentilen kulturak nahiz bera erreproduktzeko sortua zuen instituzionalizazioa zeharo galdu ukan, kristautasunarekin orpoz orpo oroimenean iraupena gordetzen zuela jabetzea. Honetaz ohartun eta sentsible, geroago ikertzaile bezala ekarpen bikaina egingo zuen, hain zuzen: ahozketasunaren antropologo bilakatzeraino.

Joxemartinen sortauzoa den San Gregorio 1794an 22 sendi zituen parrokia bilakatu zen, 1900 urtean, ordea, Joxemielek dioenez, berealdiko hazkundera ukan zuen:

Mila pertsona bizi ziren ehun eta hogeitaz familiatan; hauetatik 92 familia nekazaritza bizi ziren; besteak, 4/5 familia artzantzatik, 10 ikazkintzatik, 5 kanteretatik, 2 zurgintzatik, 1 mendiko egurgintzatik, 1 irakaskuntzatik, 1 tabernaritzatik, 2 kaminogintzatik eta 1 konfiteritzatik<sup>4</sup>.

Deskribapen honetan oraino tokirik ez duen langintza berriak lehentasuna hartuko zuen hogeigarren mendean zehar: frabiketako langileak sortuko ziren Ataunen ere, alegia. Eta beste lantegi guztien oinarrian eta aldi berean ukan duen garrantziagatik CAF izendatu behar da langile horien destinoan. Joxemartinen eskola lagunik gehienak fabrikante bilakatuko ziren. Ordu arteko gizartearen arauak zeharo zilipurdikatuko zituen gertakizuna da berau. Hiri kulturara eraman-go zituen lehen urratsa honekin ematen da ataundarren artean, noski. Honela dio bere lanetariko batean Joxemartinek:

Ohituraren indarrak dauka osotua, nagusiki, ataundarraren pentsamendua, oroimena, nahimena, ingurunea, ekologia, bizimodua, hein handi batetan, ere azken

---

2. Cf. ARANBURU, Pello Joxe. *Ataungo ogibide historikoen edo artzaintza, nekazaritza, basogintza, burdinola, errota, eraikuntza eta zerbitzuen kulturazko eragin nagusia bertako ETNOSAREN historia, XIV-XX mendeetan*. Ataun: Ataungo Udala, 2003.

3. Cf. ARIN DORRONSORO, Juan. "Toponimia y vida rural en Ataun". In: *Eusko Jakintza*, VI. 1952; 188. or.

4. URDANGARIN, Nekane; MUNDUATE, Leire. *Karobiak Ataunen*. Gerricko Ikerlan Sariketa, 1996; 21. or.



hirurogei urteotan industriazkoaren indarrak ataudarren izakeran partehartze arduratzaile bat daukela. Ohiturazkoa edo tradiziozkoa iraganeko garai zaharretatik datorkie, kulturazko nortasun konkretu bati, euskalduna eta “ataundarra”, elementu ezagun eta ezezagunak aldiro konbinatzerakoan, lehentasun ohizkoa berreskainiaz<sup>5</sup>.

Gero, Joxemartinek ikertzaile bezala bere bigarren eta hirugarren aldia deitu izan dituenak industrializazioaren eragin honek ekarritakoak aztertzeraz datoz: Euskal Herriko etnografia eta antropologia soziokulturala bata, eta antropologoa hirian bestea, alegia.

## 2.5. Transizionalaz

1961ean Saturrarana lehenik, eta Donostiara ondotik, seminarista bezala formatzera joan zenean, egoera transizionalean murgildu zuten. Seminarioak hasteko eta behin Joxemartinen idiosinkrasia asaldatu baitzuen. Etxetik eta herrietik zekarrenari, kristau eraikuntzaren ardatzean ezik, oso osorik eraso baitzuen frankismoaren mintegitza funtzionatzen zuen seminarioak. Kanpotik bezala barrenetik asaldatu zuen Joxemartinen idiosinkrasia. Gurasoekiko, auzokideekiko eta orduarteko lagunartearekiko loturak, euskararekiko erreferentzialitatea, bat batean, zakarrontzira bota behar izan baitzituen. “Seminarista izan nahi baduk haizen oro baztertu behar duk” zen konsigna. Hausturan jarritako Joxemartin suturara begira jarri zuten, noski. Baina sutura bigarren idiosinkrasia bat lortzean zegokeen. Horretarako psikismoa talde aldamioren bidez birreraiki bidean jarri zioten. Formazio haren lorpenak talde gisa barnetik egituraturiko fenomenoek osatzen baitziren. Gorputzaren irudia, animaren irudia, sendiaren irudia eta tokia, sare identifikatorioak, sorkuntzarekiko fantasmak zituen zutabe nagusiak. Hori ezartzean lehengo eta oraingo idiosinkrasien arteko komunikazio kontrolatua etorri zeterren. Zeren seminario sarreran hustu bazioten ere lehen idiosinkrasia, barnenean ez baitzen hila, hilezkorra baita pertsonak irauten duenaino, nahiz ordezkakoaz bizi daitekeen neurri bateraino. Eginkizun honetan artikulazio gune, sinbolizazio gune berri egiten denaren garrantzia bete betea izango da. Kasu honetan “jainkoaren zerbitzari izateak” gaineatiko oro errelatibizatzen du. Baina idiosinkrasia berriaren aldamiok ezinbestekoak eta absolutuak agertzen dira. Horiei esker eta horiekin “jainkoaren zerbitzari” bihurtzeko bidean ibiltzea behar-tuko baidute. Hausturaren une beretik egun batez suturara ailegatzea helburu zela etzagun ahanzi. Lorpena hiru elementu konbinatetik etorriko da: Marko berria sortzetik; eduki suntsitzaileak kontinente gizatiar aktibo eta egokian ordezkatuak izateko ahalmena lortzetik; elkartasun sinboloak artikulatzeko ahalmena berpiztetik. Eta Joxemartinen kasuan, maila bateraino behintzat, lortu zuten. Zortzi urteren buruan, filosofiako ikasketak amaitzean, prest baitzegoen apez bizitza onartzeko. 2005eko abenduan, unibertsitatean azken kurtsua egin zuen egunean, hil aitzin sei aste lehenago, ahaldua eta bere buruaren egoerarekin preokupatuta zegoela, elkarrekin bazkaldu genuen. Eta hainbat aipamen egin ginuzten bizitzako pasarte desberdinetaz. Horietako bat berak harrotu zuen.

---

5. Cf. APALATEGI, Joxemartin. *Antropologia berria. Ahozko herri produkzioa. Ataungo Herria, auzoak, pertsonataldeak eta pertsonak*. Donostia: Aurrezki Kutxa Munizipala, IV t. 1988; 220-221. or.

“Seminarioan azken urtean nengoela Joan Mari Lekuona apez gidariari proposamen bat egin nioan”, esan zidan. Hau berria izan zen niretzat ere. Ordu arte ez baitzidan behin ere aipatu. Proposamen hori, honoko hau izan hukeen:

[...] pozik apezuko naiz, baldin eta seminarioak onartzen badit teologia ikasketak ordaintzea atzerriko unibertsitate batean, eta apeztu ondotik, parrokia batera igorri beharrean, apez ikertzaile estatusa onartzen badit.

Kontsulta egingo zuela agindu ziaran. Erantzuna ezetz izan uken. Orduan erabaki nian nik neuk nire aldetik ikertzaile bidea burutu behar nuela. Baina oraino ere pena diat “apezku gabe gelditu izana”. Bizitza honetako nire goi nahia, apez ikertzaile izatea bai hukeen. Frustrazio gustu horrekin mundu honetatik joango nauk.

### 3. PERTSONALIZAZIOAZ

1969an, hogeitaz urtekin, Parisera ikasketak egitera abiatu zenean, talde aldamioren baitan bizitzea utzi, eta pertsonalizazio bidean jarri zen. Parisen hasteko eta behin, Vincennes edo Paris VIII Unibertsitatean, 1968ko ikasle erreboltaren ondorioz sortutako unibertsitate esperimentalean, 1972an Soziologiako lizentzia amaitu zuen. Hain zuzen, unibertsitate honetako giroan pertsonalizazio aukerak nabarmentzen ziren ikasketa formalenak ere maila bateraino norberak konposa zezakenez. Joxemartinekin euskaldun anitz bildu ginen Paris VIIIan. Harridura eman zigun, gehienok edo beste denok, ardatz politikoa nagusi zuen soziologjaren aukera egiten genuenean, Joxemartinek, neurri handi batean etnologiaz eta artearen soziologiaz ordezkatzeko zuela ikusteak. Arte zale amorratua zen. Horrek geroago erreflexurik izan zuen. Hainbat eta hainbat euskal artistaren lanak aurkeztu baitzituen mass-medietan bezala hitzaldietan. 1974tik Donostiako Herri Irratian euskal arteari buruzko saiok eskaini zituen. Hor daude ere lekuko: *Zabal*, *Zehatz*, *Zeruko Argia* (Urzola izenordez sinatuak), *Punto y Hora*, *Habe*, *Porrot*, *Egin* eta *Deian* argitaraturiko artikulua. Bere adiskide min egin zituen artista horietariko zenbait: Jesus Etxebarria, Pantxoia Saint Esteben, Tomas Murua, Migel Angel Lertxundi, Jon Iturrarte, Rezola, Nisa Goiburua, Agustin Gonzalez Azilu, etabar. Aipamen anitz egin zion ere Eduardo Txillidaren langintzari. Harreman sendoak edukitzeraino heldu baitzen garai haietan harekin.

Pertsonalizazioaren bide hori indar handiz jarraitzen zuela berak idatziriko pasarte batek ongi erakusten du:

Niri, lizentzia amaitzean, Parisko unibertsitateko etnologo-soziologo batek Parisen ikasketak egiten jarraitzeko eskatu zidan mañtrise edo tesisa burutzearen. Ezetz erantzun nion. Ba nire antropologjaren lekua Paris ordez nire Herria, nire Kultura izan zedin nahi bainuen. Horrela, nire aukera pertsonala egin nuen, eta 1972an gertatu zen<sup>6</sup>.

---

6. Cfr. *Ibid.* 31-32. or.

Herria eta Kultura, argi dago zeintzuk ziren berarentzat: Euskal Herria eta euskaldun izaera darion kultura. Joxemartinek latina eta grekoa ikasiak zituen bere seminarioko aroan, baina, geroztik lau hizkuntza garaikide landu eta erabili zituen, baina, ez zuen ezpairik edozein hizkuntzatan arituz ere beti euskalduna zela:

Cualquiera que sea la lengua de la que me valgo para expresarme, siempre está movida por mi única y asumida personalidad que es Euskaldun. Tengo al Homo sapiens sapiens por ventana y a Euskal Herria o Euskadi por casa<sup>7</sup>.

Parisetik Euskal Herrira itzuli eta berehala praktika bihurtu zuen aurreko aitoren hori. Ondarroako Zubi Zahar ikastolan irakasle eta zuzendari bihurtu baitzen. Bost kurtso egingo zituen bertan. Binbitartean, 1978an Parisera berrituz, Institut Catholique Unibertsitatean Filosofiako lizentzia atera zuen. Baita Valenciako unibertsitate publikoan Filosofiako lizentziatura ere 1980an. Ikastola utzirik Donostiako Zuzenbide Fakultatean euskarazko irakasle izan zen 1981-82 kurtsoan. Eta 1981az gero Euskal Herriko Unibertsitatean, Donostiako Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean, antropologia euskalduna eta konparatuaren irakasle, eta 1988tik irakasle titularra bilakatu zen. Paris VIIIan Soziologiako maîtrisea, eta irakasle zen Donostiako Fakultatean, Julio Caro Barojaren zuzendari-tzapean, antropologian doktoregotza lortu zituen 1984ean. Montrealgo University of McGill-en, English Certificate, 1989an, eta Oñatiko International Institute For The Sociology Of Law-n, Master in Sociology of Law, 1998an, ere lortuko zituen.

#### 4. LORPENAK ETA ETSIPENAK

Ikerketa alorreko lorpen eta hutsegiteetaz jardungo naiz. Jakintzaren munduan, antropologiaren alorrean, kokatu zenez gero, leit-motiv batek gidatzen du bere ikertzaile jokabidea: Etnografari izan behar, lehenik. Ikus nola agertzen duen:

Aurrena etxean, gero atzerrian (euskal antropologoeekin eta arkeologoeekin lekuan lekuko ikerlanetan, eta unibertsitateetan, alegia) erakutsi zait antropologoaren hasiera etnografari izatetik datorrela. Buruz ikasitakoa bereziki etnografia eginez hasi naiz ulertzen. Orain nik ere nire maixuen eta andereinoen erakutsi praktikoen erakusle haundi izan nahi dut, egunetik egunera, bilakatzen joan. Bedi, bada, ikerlan hau, ikasgai apal eta sutu<sup>8</sup>.

Eta prasian sartuz, Joxemiel Barandiaranen “Etnografiako galdeketa batetarako gidaliburua” euskarara itzuliz 1985ean argitara eman zuen. Jarraian, Joxemartinek berak, galdeketa hori erabiliaz lortutako erantzunekin hiru tomo argitaratu zituen: “5 etnografiako galdeketa elikapenez” izenburupean. Bere

---

7. Cf. APALATEGI, Joxemartin. *Introducción a la historia oral. Kontuzaharrak (viejos cuentos)*. Barcelona: Anthropos, 1987; 13. or.

8. Cf. APALATEGI, Joxemartin. *Antropología berria. Ahozko herri produkzioa. Ataungo Herria, auzoak, pertsonaldeak eta pertsonak*. Donostia: Aurrezki Kutxa Munizipala, 1988; 27. or.

ikertzaile bizitzan egindakoak kontuan hartzen baditugu, beste inork ez bezalako lan kopurua egitea lortu du etnografari bezala. Bere tesia lau tomatoko lan erraldoia da. Joxemartin bera tesiaren emaitzak aipatzean zoriontsu sentitzen da lortutakoarekin. Bete bete dago begi bistara agertu zaiolako egin behar zela uste zuenaren oparotasuna. Honela dio ondorio horietariko batean:

Mito ataundar guztien klasifikapena ematen dut lehen tomoan. Zer aberatsa den bide hau herritar hauen izakera ikasteko!<sup>9</sup> Halabeharrak aginduta izan bada ere, oraingoz bere azken lana, postumoa, alegia, etnografia lan bikain bat da: *Malikakixki* ipuinaren azterketa antropologikoa<sup>10</sup>.

Bere curriculum zehatz mehatz ikustean garbi dago etnografari lanak direla nagusi. Eta etno-mitologian Euskal Herrian egin den lanik landuena eta aberatsena dela Joxemartinena esan behar da. Ez dut inolako zalantzarik baieztatzen dudana hala egiteko orduan. Gainera kontuzaharrei dagokienean bere lanik borobilena lortu zuen: *Introducción a la historia oral. Kontuzaharrak (viejos cuentos)*, aipatua, alegia. Nola teoriaz, hala metodoaz eta formaz oso liburu bikaina da. Lorpen handia! Baina, hain zuzen, etnografari lanetik areago hegaldatzen jakin zuen. Aztertzen den konzeptuaren ezagutzarako konbinaketa zoriontsu bat egiten du: dokumentazio idatzi osoa, konzeptuaren inguruko kultura materiala, eta ahozko produkzioa, bildu, klasifikatu, eta teoria zorrotzez tratatu, alegia. Badirudi gaien egindako lorpenak Julio Caro Baroja bera inpresionatu zuela:

Creo que la obra de J. M. Apalategi es una valiosa contribución para llevar adelante aproximaciones concretas y seguras, y para no dejar los “textos” fuera de sus “contextos”. La tradición oral es algo mucho más complicado y variable en su dinámica de lo que se ha dicho. Porque, en realidad, no hay una sola. Sus relaciones con la tradición escrita son complejas<sup>11</sup>.

Hala ere, bizitzako azken asteetan, Maite Idirin bere koñatari etsipen deklarazio bat egin zion bere etnografia zaletasunari lotua, esanez :

Tronpatu egin naiz nire ikertzaile jokabidearekin. Hainbat azpimarratu zidaten etnografia zela antropologoaren eginkizun oinarritzkoa, non gutxitu egin baitut ondotiko lantzearen beharra. Ni desagertuko naizenean (bere osasun egoerak berehalako amaiera sentituarazten zion), nire planteamentu teoretiko-metodologikoak faltatuko baizaizkie nik bildutakoa interpretatzeko orduan. Bildu hala egin behar nuen lan hori.

Hala ere, azkenean porrot bat bezala agertu zuena, kezka bezala hasiera hasieratik zebilen:

Zer nola egin, ordea, etnografia? Galdera hau duela urte batzuek gero nire buruari egiten natorkio... Nire ikerlana eginala, ohartu naiz etnografariek hiru bide

---

9. Cf. APALATEGI, Joxemartin. *Ibid.*; 219. or.

10. In: APALATEGI, Jokin (arg.). *Aitona gurearen malkilakixki, Joxemartin gogoratuz*. Donostia: Utriusque Vasconiae, 2006; 13-88. or.

11. Cf. “Prólogo”. In: APALATEGI, Joxemartin. *Introducción a la historia oral. Kontuzaharrak (cuentos viejos)*, op. cit. 1987; 9-11. or.

Apalategi Begiristain, Jokin: Ahozkotasunetik euskal hirian murgildu zen antropologoa

erabiltzen dituztela beren berriak jasotzeko: ahozkoa, materialezkoa edo plastikazkoa, eta idatzia<sup>12</sup>.

Are oraino antropologo izatearen arangurak beste agerbide hau idaztera ere eramane zuten:

Ikerlan honi, esker, orainarteko guztietan ez bezala, antropologo bihurtzen ari naizela sentitu dut. Zeinen garrantzitsua puntu hau! Gainera, antropologiaren jarraipenaren euskarrietariko bat bihurtzen ari naizela sentitzen dut. Kontzientzia honegaz lanbidezko gaitasunaruntz nihoala argi eta garbi dago. Izan ere, antropologo izatea ere emaitza tenporala eta bizitzazkoa da, hots, gure edozer emaitza bezala bere lanari esker, eta ez beste ezerri esker, bilkatzen dena<sup>13</sup>.

Bere emaitza lorpenen artean aipatu behar dugu ere Teresa del Valle gida-turik, Joxemartin gizonetako bakar zen taldean, euskal emazteari buruz egin zuten talde lana: *Mujer vasca, imagen y realidad*<sup>14</sup>. Ikerketa lanak ekarpen esanguratsua suposatu zuten euskal emakumeen ezagutzarako landutako gaiaren dimensio soziokulturalagatik. Aldi berean, antropologia garaikidean hain eskas egiten den lan mota zen ere ikasketa markoagatik eta erabilitako metodologiagatik.

Bigarren ikerketa orientazioa deitu dezakeguna 1985az gero hasi zuten

Euskal Herriko etnografia eta antropologia soziokulturala izenburupean gure kulturaren geografia osoan eta populazioaren klase guztietan gaur gaurko etnografia egiteari ekin nion... Gainera, etnografia eginala antropologia soziokulturala egiten ari naiz<sup>15</sup> [...]

dio, eta esaldi horri loturik aurkezten du alor honetako lan mardulena: Antropologoa hirian, Bilbon, alegia. Zergatik hirira ailegatzen den?

Hiri haundienak eta mediak dira sozialaren leku nagusienak. Bilbo, ez ote da, iadanik (euskal parlamentuaren eraiketarik) Euskal Herriko hirien hiri? Beraz, biharko euskal kulturaren erantzunaren lekua?<sup>16</sup>

Pentsamendua sakonago eta zabalago garatzen du lan berean dionean:

Nik, hipotesi bezala, biharko kultura Euskal Herrian euskaldunena izango dela esaten dut. Euskal Kulturaren barnetik, beraz, arituko naiz denbora guztian ikerlan hau burutzerakoan. Eta hori, zergatik? Guretariko bakoitza kultura baten jabe bakarrik da beti. Kulturaz alda lezake? Bai! Eta aldatzen duen asko da gure Herrian bezala munduko herri guztietan. Nik euskaldun izatea aukeratua daukat. Telematizatzen dihoan mundu honek, bere biztanle guztiak, ia ia haruntz eta honuntz ibiltzea geroz

---

12. Cf. APALATEGI, Joxemartin. *Antropologia berria. Ahozko herri produktzioa. Ataungo Herria, auzoak, pertsonataldeak eta pertsonak*, op. cit. 1988; 29. or.

13. Cf. APALATEGI, Joxemartin. *Ibid.*; 35. or.

14. DEL VALLE, Teresa; et al. *Mujer vasca, imagen y realidad*. Barcelona: Anthropos, 1985.

15. Cf. APALATEGI, Joxemartin. *Antropologia hirian, Bilbon*. Donostia: Kriselu, 1987; 175-176. or.

16. Cf. *Ibid.*; 179. or.

eta gehiago behartzen ditu, pentsamenduz nahiz gorputzez, eta oraindik gehiago bizimoduz. Horrela Europa berak inmigratuak medio dituela, bihar bere kultura guztiak berrantolatu egin beharko ditu. Euskaldunok berrantolaketa hori aspalditik dakigu zer den. Azkenengo aldiz, gure 36ko guda nazionalistaren ondorioz hartu izan dugun inmigrazioagatik gure kultura berrantolatu beharrean aurkitu gara, eta 1987an euskalduna berriro ere izatea lortu dugu. Zati eder batean, antropologo batzuen lanari esker baita ere berrantolaketa burutu ahal izan da. Bihar, zientzilariok oraindik parte haundiagoa eduki beharko dugu. Zergatik? Telematizatutako munduaren giltzarria zientzian eta intelektuaren lanean kokatzen delako<sup>17</sup>.

Hirugarren ikerketa alor landua antropologiazko hiztegia osatzen eramandako saioa da. Horretarako oina Joxemiel Barandiaranek Euskaltzaidiaren *Iker 2*. liburuan argitaratutako, Ataunen erabiltzen ditugun hitzak eta Euskal Hiztegi arruntetan eta batez ere Azkuerenean, ageri ez direnak, artikulua du aitziki. Adineko lau ataundar berriemileren bidez kontzeptu horien erabilpena irakasten digu. Ez du ahazten ere adieraztea, sail horretan Joxemiel Barandiaranen *Diccionario ilustrado de mitología vasca* lan paregabea dela. Eta 1984an Joan Garmendia Larrañagak bere doktorego tesia, Julio Caro Barojaren zuzendaritzapean, Donostiako Filosofia eta Hezkuntza Fakultatean defendituz aurkertu zuen euskal hiztegi antropologikoak sapaia jo zuela alorrean.

Laugarren ikerketa orientazioa etnografia filmatuan datza. Oraino ez da publikoarentzat ezaguna. Baina, egun batez, agian laster, ezagutzera emango dugu. Lan eskerga eta originala da egina dagoena.

Bosgarren ikerketa orientazio atzerrietan zehar jasotako etnografia dugu. Europan, Ameriketean, Asian eta Afrikan egindako bilketak daude. Hau ere ez da publikoarentzat ezaguna. Etzagan ahanzi bere ikasgaietarik bat antropologia konparatua zela. Etzitzaion besteek idatzitakoan oinarrituta errealtate desberdinek konparatzea. Horretarako berak bildu behar zuen materiala. Hala burutzen ari zen, azken aldian etengabeko bidaiak eginaz.

Seigarren eginkizuna argitaratzaile errolean bete zuena da. Besteak beste, *Antropologiaren euskal bilduma Barandiaran Joxemiel* (AEB-BJM) ezaguna aipatu behar da sail honetan. Hogeita hamabi liburu argitara eman zituen Luis Haranburu Altunaren Kriselu argitaletxean. Beti eskertzen zuen harek emandako laguntza eta itzala azken egunetan ere. Egun batez uztea erabaki zuten arte. Jarraian, Elkar argitaletxeak sirena keinuak martxan emanaz bereganatu zuen. Luis Haranburu Altunarekin eramandako lana zapuztea beste helburik etzuen mugidan sartu zutela jabetuko zen geroago. Haustura hura lortu bezain berehala kale bazterrean utziko baitzuten, beste hainbesterekin egina zuten bezala. Kolpe batez, bi liburu atera ziren egoera horren iraupenean: "Pertsona eta sozietatea" sail berrian, alegia. Baina, esan bezala, saila sortu bezain pronto deseginez amaitu zen guztia. Hainbeste aldiz, hainbati esan ziotena errepikatu zitzaion Joxemartini saila ixteko justifikazio modura: ez duk saltzen! Elkarrekoek ongi baino ere hobeto zekiten sailarekin hasi aurretik ere zer saltzen zen liburu mota

---

17. Cf. *Ibid.*; 177-178. or.

horien merkatuan. Baina euskal kulturaren ardura duen argitaldari profesional baten egiteko soila ez baita saltzen diren produktuak baizik sortzea. Are jakinean ez zutela zentimorik ere galtzen liburu haiekin Eusko Jaurlaritzaren diru laguntzak izanik medio. Liburu bilduma horretako lehena perla bat da: Xabier Iratzederren, *Hamazazpi hilabete Afrikako bihotzean (1987-1988)*. Belokeko abade ohiaren desterru politikoan egindako lana. Anitz eskertu zuen argitalpen hura Aita Xabierrek. Joxemartini idatzitakoaz aparte, neuri igorritako gutun dohatsu bat gordetzen dut korrespondentzia artxiboan. Bigarrena ere lan txukuna eta akademikoki eredugarria da: Kepa Fdez. de Larrinoaren, *Hitzak, denbora eta espazioa*, hain zuzen. Hitzak ez direla zoriaren ondorena erakusten da. Hitzak asmakizunak direla. Batzuk aukeratuz, bestetzuk isilduz, boza dela medio errealitatea eratzten baitugu. Alkizako baserriarren hitzak aztertzen dira. Espazioa eta denbora adierazteko darabiltzatenak, espezifikoki.

Zazpigarren eginkizuna 1989an sortu zen Gerriko Idazlan Sariketan bederlatzi urtez, eta 2001az gero aurrekoari jarraitu zion Gerriko Ikerketa Bekaren zuzendari zientifiko eta kudeaketakide bezala egindakoak osatzen du. Dionisio Amundarain sortzaile zuelarik, berehala GEEz gain Maizpide Euskaltea eta Lazkaoko Udala bildu ziren langintza proiektu hori sostengatzera. Emaizak, zinez, aipagarriak dira. Lehen bederlatzi edizioetan 26 ikerlan aurkeztu ziren. Horietarik 19 sarituak eta argitaratuak izan dira. Hamargarren aldirian, 2001ean, zortzi proiektu aurkeztu zirelarik bat izan zen beka jaso zuena ikerlana burutzeko eta argitaratzeko aukera eskaini zitzaion. Hamaikagarren aldirian, 2003an, bost proiektu aurkezturik batek jaso zuen ere ikerlana burutzeko beka eta argitaratzeko aukera eman zitzaion. Hamabigarren aldirian, 2005ean, proiektu bakarra aurkeztu zelarik sari gabe utzia izan zen.

## 5. GEHIGARRIA

### 5.1. Heziketa akademikoa

- Humanitateak eta Filosofia Saturraran-Donostiako Elizbarrutiko Seminarioan.
- Paris VIII Unibertsitatean Soziologiako Lizentziatura (1972).
- Euskaltzaindiaren D titulua (1976).
- Parisko Institut Catholique-an Filosofiako Lizentziatura (1978).
- Deustuko Unibertsitatearen ICE-an, "Euskal Herriko Historia eta Kulturari buruzko Kurtsoa" (1978-79).
- Euskaltzaindiaren B titulua (1979).
- Euskaltzaindiaren A titulua (1979).
- Valentziako Unibertsitatean, Filosofiako Lizentziatura (1980).
- Gasteiz-Vitoriako Filosofia eta Letren Fakultatean, Historiako Doktoradutzako Erdibidea (Antropologia espezialitatean), (1981).

- Parisko École des Hautes Études en Sciences Sociales-en Soziologiako Ikasle Titularra (1981-82).
- Paris VIII Unibertsitatean, Soziologiako « Maîtrise »-a (1984).
- Donostiako Filosofia eta Heziketa Zientzietako Fakultatean, Antropologiako Doktoradutza titulua (1984).
- Montrealgo University of Mc-Gill-en, English Certificate (1989).
- Oñatiko International Institute For The Sociology Of Law-n, Master in Sociology of Law (1998).

## 5.2. Irakaskuntza

- Donostiako Larramendi Ikastetxean, Artearen Historia Unibertsala (BUP eta COUkoentzat) ikasgaia eman zuen (1974-1975).
- Donibane Lohizunen, Udako Euskal Unibertsitatean, “Etnologia eta soziologia”: Kondairaren Ataritik edo Ataungo S. Gregorio Auzoa, aurkeztu zuen (1974).
- Ondarroako Zubi Zahar Berri Ikastolan, Eskola-aurreko eta EGBkoentzat Zuzendari Pedagogikoa (1975-1977).
- Ondarroako Zubi Zahar Berri ikastolan, Natur Zientziak eta Hizkuntza eta Kultura (1975-1981).
- Ondarroako Alfabetatze eta Euskalduntze Koordinadoran, Hizkuntza eta Kultura (1975-1981).
- Ustaritzen, Udako Euskal Unibertsitatean, Etnologia (1976).
- Donostiako Filosofia eta Heziketa Zientzien Fakultatean, Euskal eta Atzerriar Kulturen Antropologia (1980-2006).
- Bartzelonan, Universidad Central-eko Antropologia Departamentuan “Kultura Antropologikoa”, (1982-1983).
- Iruñan, Udako Euskal Unibertsitatean, Kultura Antropologikoa, 1983, 1988, 2003, 2004 etabar.
- Donostiako Filosofia eta Hezkuntza Zientzietako Fakultatean, Julio Caro Barojaren iraskasle laguntzaile (1984-1985).
- Pabe eta Aturriko Herrietako Unibertsitatean, Faculté des Lettres et des Sciences de l’Homme, « Assistant Associé de Sociologie » (1984-1985).
- Donostian, Kriminologiaz Euskal Institutuan (1985-1988).
- Udako ikastaroak. EHUan, 1992, 2002, 2003, etabar.



### **5.3. Elkarte zientifikoetako kide**

- Gipuzkoako Etnikerren taldekide.
- Arazandi Elkarte Zientifikoko kide.
- Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos elkartean Gipuzkoako Lehendakariorde, 1991tik 1993ra.
- Udako Euskal Unibertsitateko kide.
- Zientziartekoa aldizkariaren idatz-kontseilukide.
- “Pertsona Zientzien Laborategiaren” sortzailekide eta zuzendarikide.

### **5.4. Aipamenak**

- *Gran Diccionario Enciclopédico*. Plaza y Janés, 1996.

